
ERITXIAK

ANDONI OJANGUREN

Mutrikuko semea da, 23 urtetan zehar gihartua eta beltzarana. Bere meritua, 92-ko Olinpiadetan urrezko domina lortu izana zesta puntan.

Kotxea Txurruka plazan utzi eta Erdiko kaletik beherantz abiatu nintzen. Telefonoz hotsegin nionean esan zidan bezala, Kardala tabernarantz jo nuen bere helbidea eman ziezadaten. Iluntzeko bederatziak ziren mostradorean Andoni Oiangurenekin hitzegitekotan nintzela azaldu nuenean. «Bai hementxe bertan bizi da» erantzun zidaten, «taberna gainean».

Tabernaren aldameneko atarian sartu eta argia pizteko ahaleginetan etxebarru guztiko tinbreak jo nituen eta eskailera burutik, Andonirekin hitzegitea besterik ez nuela nahi adierazi behar izan nien nere tinbre deiari erantzutera atera zirenei. Lehenengo pisuko atean neska bat agertu zen eta «Andoni zeuretzat» esanez, etxerako sarrera erraztu zidan.

Berehala atera zen Andoni; egongelara gonbidatu eta atea itxi ondoren, aldizkarirako eskatu nizekion argazkiak erakusten hasi zitzaidan, munduko naturaltasun osoz, betidanik ezagutuko baigina.

Aukeratutako argazkiak egurrezko aulki baten gainean utzi eta telebista mututzeko eskatu ondoren, grabadorea jarri eta hauxe izan zen gure elkarrizketa:

- *Noiz hasi zinen zestaz jokatzene?*

Ni 12 urtekin hasi nintzen baina garai hartantxe egin zen Mutrikuko frontoia eta nobedadea zelako batez ere. Zesta ni neu baino handiagoa zen eta hiru hankatan ibiltzen nintzela ematen zuen. Niri orduan ez zitzaidan zestoa gustatzen, futbola baizik, baina lagunekin ibiltzearren frontoira joaten nintzen. Hori dela eta, nere zaletasuna jendeak ez du ulertzen. Zestoa



ez da niri gehien gustatzen zaidan kirola. Gustora nabil baina bi metro hazi banintz, seguraski saskibaloiko jokalaria nintzatekeen.

- *Zestaz gain, zer beste kirol egiten duzu?*

Arineketan eta mendian ibili asko, hankak indartzeko.

- *Nola izan zen Olinpiadetarako deia?*

Duela lau urte Olinpiadetako asuntua hasi zenean, lau ginen prestaketetan hasteko baina soldata bapeza zelako eta sariei buruz ezer garbirik esaten ez zigutelako, utzi eta lanari heltzea erabaki nuen. Gero, urte bete falta zela berriro deitu eta zernolako sariak zeuden jakin ondoren, lana utzi eta bizian behin izango nuen oportunitate horri kolpe egin nion.

- *Zein izan da urrezko domina ateratzearren lortu duzuen saria?*

Milioi bana eskuan eta 50 milioi 50 urte kunplitu ondoren kobratzeko.

- *Zeintzuk izan zarete hemendik joanikoak?*

Zelaia eta Atain Markinatik, Compañó Gasteiz-etik eta neu Mutriikutik.

- *Zenbat partido jokatu behar izan dituzue?*

Zortzi partido bi bueltatan. Denak irabazi ditugu, eta guk uste baino erosoago gainera.

- *Zer nolako indarra izan du zestak Bartzelonan?*

Egunero betetzen zen frontoia; jendea kalean geratzen zen sarrerarik gabe. Berrikuntza izugarria izan da alemaniarrentzat eta batez ere, japoniarrentzat; partidu guztiak grabatzen zituzten.

- *Zer nolako giro deportiboa egon da hiri olinpikoan?*

Beno, denetarik egon da; gehienek kirola serioegi hartzen zutela uste dut. Partiduren bat galdu ezkerro, muturrak lurrean zituztela ibiltzen ziren eta hori ez da bat ere deportiboa. Egia da, jendea asko entrenatu dela eta bazegoela diru asko jokoan zuenik ere.

- *Zer nolako maila izan dute zestan beste herrialdeetako jokalariek?*

Maila ona izan da baina frantsesak gehiegi fidatu ziren eta horretxek galdu zituzten.

- *Joku olinpikoetan parte hartzearekin zer lortzea espero zenuen?*

Domina lortu eta azken urte hauetako bidaia eta prestakizunekin behingoz amaitzea. Oso luze eta neketsua izan bait da.

- *Zertzu ondorio baikor eta ezezkorrak atera dituzu esperientzia honen ondotik?*

Baikorra izan da oso frontoia beteta ikustea, interesa sentitzea eta ospetsuen artean ibiltzea. Ondorio ezezkorrik ez dut atera.

- *Nolako errepresentazioa izan duela uste duzu Euskal Herriak edo euskaldungoak hiri olinpikoan?*

Gu ahal izan dugun atzeritar guztiekin egon gara zestoa zer den azaldu nahian. Ikaratuta gelditu dira denak eta nik uste, publizitate ona egin dugula. Ingeles hitzegiten jakin ez arren, eskuekin baliatuz bada ere, denekin egin dugu konpainia.

- *Zer izan da gehien hunkitu zaituen aspektua?*


Lekua; 15.000 kirolzale egon gara hiri txiki batetan, geuretzat bakarrik diseinatutako herrixka batetan. Izan genitzazkeen kapritxo guztiak duban izan ditugu: jatetxeak, zinemak, dantzalekuak... Bestetik, herrian debekatuta zeuden kotxeak eta denok tren «txutxu» batetan edo bizikletan ibiltzen ginen. Carl Lewis bezalako ospetsu baten aldamenean jaten egotea ere, ez da bizipen txarra izan.

- *Zer dakarkizu Joku Olinpikoetan parte hartu izanak?*

Jendeak beste era batetara tratatzen nau, errespeto gehiagorekin bezala eta niri hori ez zait gustatzen. Ni ez naiz aldatu.

- *Eta etorkizunean zer?*

Eskaintza handiak egin dizkidate baina Donostian irekitzeko den euskal pilotaren enpresa horrek nola funtzionatzen duen ikusi nahi dut. Azken finean, lana da orain gehien kezkatzen



nauena eta ez dut eskuartean dudana lana uzteko asmorik zorte apurra probatzearren. Jendeak uste du, Mexikora joan ezkeror diru asko egiten dela baina hori ez da errealitatea. Nik ikusi ditut handik bueltatu eta arrastea sartu direnak, lurjota, eta nik hori ez dut nahi.

- *Zesta zer da zuretzat, profesioa ala afizioa?*

Afizioa. Askotan esan didate debutatzeko baina ez dut nahi. Debutatuko nuke diru asko irabazteko baina bestela, hemen lana badaukat eta etxean nago hobeto. Gainera, afizionatuen artean beste saltsa bat egoten da, «pikia, ribalidadia, kanpeonatu datorrela eta trofeuaren atzetik ibiltzia, eta... beste saltsa bat». Profesionala bazara aldiz, apostuak direla eta, zuregatik apostatu duen jendearen ardura duzu.

- *Atlantara joateko asmorik bai?*

Ez. Aurten Bartzelonan exhibizio gisa hartu dugu parte, baina bestela, zesta ez da kirol olimpiko bezala kontsideratua. Maila olimpikoa lortzeko, nazio parte hartzaile gehiago beharko lirakeke egon.

- *Nork eta zer izan zen Bartzelonara joan aurretik esan zizutena?*

Amak, ondo eta zintzo ibiltzeko.

- *Disgusto edo atsekaberik izan al duzu hiri olinpikoan?*

Bai eta galanta gainera! Lepoko katea lapurtu didatela!

- *Eta gertakizun barregarriK?*

Baita. Gau batez, goizaldeko hirurak inguruan, leiho azpitik pasatzen zirenei ura botatzen hasi ginen eta bi mutili 20 litro ur bota genien. Bi morrosko hauek boxeadore amerikarrak zirela konturatu ginenean, «kaka darixola» hasi eta kixketa botata igaro genuen gau osoa beldurrez gogortuta.

- *Zer da zestoaren ezaugarri nagusia?*

Munduan ez daude zesto berdin bi eta hortaz, zesto ezberdinak probatzen ihardun beharra daukazu, zein dihoakizun ondo jakiteko. Zesto guztiak dira ezberdinak zestalariaren altuera eta indarraren arabera.

- *Zenbat zesto izan dituzu zuk?*

Nik hamabi modelo ezberdin aldatu izan ditut gutxi gora behera.

- *Zenbat balio du zesto batek?*

Nik orain dudanak 26.000 pezeta.

- *Zer nolako ezberdintasunak daude lehengo eta oraingo zesta puntaren artean?*

Batzuek lengo pilotariak gehiago jokatzeko zutela esaten dute, besteek oraingo pilotak bizkorragoak direlako dela argudiatzen dute, lengo zestoek ez zutela fondorik ere esaten duenik badago tartean... Uste dut, aldakuntza nabariena pilotarengan nozitu dela eta ez hainbeste zestoarengan.

- *Eta nondik edo nola egin zaizu pilotarako zaletasuna?*

Aitonari ilusioa egiten ziolako. Bera izan zen zestoa eta

pilotak erosten zizkidana, baita nere lehenengo entrenatzailea eta beti animatu nauena.

- *Zesta punta zer da bakarkako ala taldeko kirola zure ustez?*

Neretzat, gaur dauden frontoiekin, zesta taldeko edo binakako kirola da.

- *Zein da gogokoen duzun janaria?*

Txuleta erreta.

- *Zein egunaren ordurik onena?*

Jateko ordua.

- *Parrandista ala etxean egotekoa?*

Biak, bata zein bestea.

- *Zein da pertsona batengan gehien miresten duzun kalitate?*

Egia esatea eta pertsona ona izatea. Gezurrak nazka ematen dit.

- *Zer da gizonak duen zorte handiena?*

Andre bat edukitzea.



- *Munduko sarraskirik handiena?*

Jendea gosez hiltzen dagoen bitartean armatan dirua gastatzea.

- *Non bizi nabi zenuke?*

Euskal Herrian eta itsas aldamenean, herri lasai batetan.

- *Zein da gebien miresten duzun pertsona?*

Michael Jordan-ek ikaratzen nau, ze bera bakarra da eta besteak «años luz» uzten bait ditu.

- *Zer musika mota duzu gustoko?*

Ona bada, edozer.

- *Zein liburu?*

Irakurtzea ez zait bat ere gustatzen.

- *Zein filme?*

Zinemara joatea asko gustatzen zait baina ez daukat berezitasunik.

- *Zer nahiago, dirua ala ospea?*

Fama ez zait gustatzen. Dirua, nahiago dut dirua.

- *Zer lortu nahi duzu bizitzan?*

Kirol mailan nahiko lortu dudala uste dut, beraz nahi dudana lana eta lasai bizitzea da.

Elkarrizketa bukatu bezain laister, berandu ere bai eta afaltzeko biok, berehala agurtu genuen elkar. Hogei eskilarak jeitsi eta Andoniren etxeko ateari azken begiratua bota nionean, pilotari gazteari bost anai-arreben artean nagusia izatearen ardura igartzen zitzaiola pentsatu nuen: «ziurtasuna balioztatzen du zortea baino areago, familia eta lagunkidetza abentura baino, lasaitasuna eta egia gaur egungo iskanbila eta elkar ezin ulertua baino... Andonik beharbada bere bizitzako esperientziarik handiena bizi izan du eta hortaz erreflexionatzeko gai izan da» pentsatu nuen «bere printzipioei hutsik egin gabe».

Ana Urkiza